

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Azaroaren 5eko 302/2019 Foru Agindua zuzendutako urriaren 25eko 281/2019 Foru Agindua, zeinak interes publikoa aitortzen baitio Sobrongo jurisdikzioan, Lantarongo udalerriko lurzoru urbanizaezinean jarduera sismikoa neurtzeko instalazio bat (Euskalsis sarearen barruan) ezartzeko proiektuari

Energiaren Euskal Erakundea (EEE) Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari atxikia dago, eta Lantarongo Udalarik obra lizentzia eskatu dio Sobrongo jurisdikzioari dagokion 1 poligonoko 380 lurzatian, lurzoru urbanizaezinean, jarduera sismikoa neurtzeko "Lanta" izeneko estazioa -Euskalsis sarearen barruan sartua- jartzeko.

Lantarongo Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Eskaera eta aurkeztu den proiektu teknikoa espedientearen zati dira, eta proiektu teknikoaren arabera, Energiaren Euskal Erakundeak ardura du Euskal Autonomia Erkidegoko geologia eta meategien azpiegitura datuak aztertu, mantendu eta gizartearen eskura jartzeko. Horrenbestez, jarduera sismologikoa monitorizatzeko sistema bat ezartzeko prozesua abiarazi da, Euskalsis sarea izeneko sare sismiko propio batekin, zeina osatzen baitu neurtzeko estazio sorta batek, lurralde guztian zehar modu homogeen banatuak (batetik bestera 25 km-ko distantziarekin). Hamabost sismografo instalatuko dira datuak lortzeko, eta denbora errealean gorde eta transmitituko dira irakurketako oinarrizko estazio batera, eta gero, integratu, prozesatu eta interpretatu egingo dira. Lortu nahi dena da datuak eta haien interpretazioa komunitate zientifikoaren eta jende guztiaren esku jartzea web atari baten bidez.

Aurkeztu den proiektuarekin bat etorritik, hauexek dira estazioaren oinarrizko osagaiak: kontrol putzu bat, 10 metro inguruko sakonera izango duena; hormigoi aurrefabrikatuzko ekipo etxola bat; elektrizitatea sortzeko sistema bat panel fotoboltaikoez osatua; etxolarako zoladura, eta eremua babesteko hesia, eta multzo guztiak ez du okupatuko 9 m² baino gehiago. Proiektuak jasotzen du, halaber, hautatu den kokagunea ezin hobea dela Euskalsis proiektuaren xedeak betetzeko eta ez dela beharrezkoa izango lursaila egokitzeko lanak egiterik, ez eta sartzeko bideak egokitu eta eraikitzerik ere.

Udal arkitektoak eginiko txostena aurkeztu du udalak, non jasotzen baita katastro erreferentzia duen 35-1-380 lurzattia lurzoru urbanizaezin sailkatutako eta 1 zona "Balio zientifiko eta/edo natural bereziko babes zona" kalifikatutako lursailean dagoela, halaxe jasotzen baitute udalerriko indarreko arau subsidiarioek, baina ez da jasotzen erabilera baimendu gisa onura publikoko eta gizarte intereseko instalazioak ezartzea. Edonola ere, irizten dio baimena eman behar zaiola esku hartzeari, instalazioak dauzkan ezaugarri eta xede bereziei erreparatuta.

Halaber, txosten horretan jasotzen da ezen Araba Erdialdeko LPParen antolamendu arauen arabera ez dagoela eragozpenik proiektuan jasotzeko instalazioa erreferentziatzeko lurzattia jartzeko, estazio sismikoa ez baita jarriko hirigunean, ezpada A-4 lurralde zatian, lurralde babeserako prozesuen eremuan. Txostenean adierazten da, gainera, ezen, Araba Erdialdeko LPParen zehaztapenen arabera, Lantarongo udalerririk bi eragiketa estrategikoko jasotzen dituela, hau da, OE-5 eta OE-9, eta bietako batek ere ez diola eragingo estazio sismikoari. Hortaz, txosten teknikoak ezartzen duenez, justifikatua dago eskatu den lizentzia bat datorrela lurralde planeamendurekin.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berriaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hoguei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Irailaren 6ko 229/2019 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onespina ematea eta hura 20 egunez jendaurrean edukitzeko aldia irekitzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Espedientea, hain zuzen ere, 2019ko irailaren 23ko ALHAOn (110. zenbakia) argitaratu zen. Horretarako emandako epearen barruan, ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Bigarrena. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak 2019ko uztailaren 26an egindako txostenean jaso da jarduera sismikoa neutzeko estazioa jarri nahi den lurzatia Sobron-Arzena mendilerroko Natura Intereseko Gunean dagoela eta aplikatzekoa dela Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 15eko 47/2016 Dekretua, zeinaren bidez Kontserbazio Bereziko Eremu eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu izendatu baitzen Valderejo-Sobron-Arzena mendilerroa (ES2110024), eta hura kontserbatzeko neurriak ezarri baitziren. Dekretu horren sarreran jasotzen denaren arabera, natura ondarearen, biodibertsitatearen eta Batasuneko garrantziko lekuen alor honetan, Eusko Jaurlaritzak eta foru organoek eskumen konkurrenteak dituzte.

Martxoaren 15eko 47/2016 Dekretuaren II. eranskinak (Valderejo-Sobron-Arzena mendilerroa (ES2110024) KBE/HBBEa kontserbatzeko informazio ekologikoa, helburuak eta arauak zein jarraipen programa jasotzeko dokumentua) honako hau jasotzen du 6. puntuan (Kontserbatzeko xedeak eta arauak): Erabilera bateragarriak. Erabilera bateragarritzat jotzen dira behar bezala eginik KBE/HBBEaren kontserbazio helburuetan eragin neutroa edo positiboa dutenak. Dokumentu honen ondorioetarako, "erregulazio"tzat hartzen da kontserbazio xedeak lortzeko beharrezkoa den betebeharrak, debeku, baldintzatzaile eta irizpide multzoa. Erregulazio orokorrak (...)

R.3. Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeko 45. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, izan banaka izan beste plan edo proiektu batzuekin batera, nahiz eta Valderejo-Sobron-Arzena mendilerroa KBE-HBBEaren kudeaketarekin harremanik ez izan edo horretarako beharrezkoa ez izan, behar bezala ebaluatuko dira modu aipagarrian eragin diezaiokeen edozein plan, programa edo proiektuak bertan izan ditzakeen ondorioak, bertako kontserbazio xedeak aintzat hartuta.

Ebaluazio horren ondorioak ikusita eta aipatu 45. artikuluko 5. atalean xedatutakoaren mende egonda, planak, programak edo proiektuak onetsi edo baimentzeko organo eskudunek horiekin bat datozela adierazi ahal izango dute kasuan kasuko tokiaren osotasunari kalte egingo ez diola ziurtatu ondoren soilik, eta hala badagokio, jendaurrean ikusgai jarri ostean.

2019ko abuztuaren 1ean, Natura Ondarearen Zerbitzuari eskatu zitzaion proiektuak izan ditzakeen kalteak ebaluatzeko txostena emateko; Lantarongo Udalari jakinarazi zitzaion hori, eta ebazpena emateko epea eten zen, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 22.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

2019ko irailaren 2an, Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalak aldeko txostena eman zuen, baina bete beharreko baldintza batzuk ezarri ziren. Txosten hori Lantarongo Udalari bidali zaio dagozkion ondorioetarako.

Hirugarrena. Proiektuaren interes publikoari dagokionez, "Euskalsis" sare sismologikoaren helburuetan oinarritzen da, eta sare horretan sartzen da espediente honen xede den proiektua.

EEEk, Geologia eta Meatze Baliabideen arloaren bidez, Euskadiko lurpeko sismikotasuna ikertzeko jardueretan parte hartzen du eta, hedaduraz, Euskal Kantauriar Arroarena, batez ere lurpe geologikoaren jarduera tektonikoa ezagutzeko eta ebaluatzeko, egitura geologikoen ezagutza, egoera eta sakonera hobetzeko, batez ere failak, eta lurra arrisku sismikoaren araberako zonifikatzeko, eraikuntza arau egokiak ezartzeko eta lurraldearen erabilera jakin batzuk mugatzeko.

EEEk alor horretan egiten duen jarduerari buruz ematen duen informaziotik ondorioztatzen da, duela zenbait urte, SISCAN sarearen bidez, sismikotasunari buruzko datuak zabaltzea, monitorizatzea, lortzea eta interpretatzea erabaki zuela. Proiektu hori Oviedoko Unibertsitateko Geologia Saileko Barne Geodinamikako Katedrak gidatzen zuen, Euskal Herriko eta Kantauriko arloko sismikotasuna ikertzeko. Datuak lehendik zeuden beste sare batzuekin ere partekatu dira, hala nola Institutu Geografiko Nazionalarekin eta Topo-Iberia proiektuarekin, eta horrek aukera ematen du neurketa puntuak dentsifikatzeko eta erregistratutako seismoen epizentrotan kokapenari buruzko balio zehatzagoak lortzeko. Gaur egun, eta jarduera sismologikoa monitorizatzeko sistema bat modu iraunkorrean ezartze aldera, EEE sare sismiko bat ezartzen ari da, Euskalsis Sarea izenekoa. Sare hori Euskal Autonomia Erkidego osoan zehar banatutako neurketa estazioen sare bat da, denbora errealean datuak bildu eta transmititzen dituen, datu horiek prozesatzeko eta interpretatzeko. Sare horren azken helburua da datuak gainerako komunitate zientifikoaren eskura jartzea eta, oro har, jendearen eskura, web atari baten bidez, aurrerago esan bezala.

Are gehiago, Energiaren Euskal Erakundearen web orriak, Sismikotasunaren Euskal Sareari buruzko apartatuan (Euskalsis), esteka bat dauka zuzenean International Federation of Digital Seismograph Networks (FDSN) federazioaren web gunera eramaten zaituena, eta haren kide da. Nazioarteko erakunde horretan, hango kideek haien neurtze estazioak nola koordinatu adosten dute, datuak modu askean eta irekian partekatzeko, xedea baita mundu guztiko komunitate zientifikoak aurrerapausoak eman ditzala, eta batez ere munduko jarduera sismikoa aztertzean.

Laugarrena. Aplikatu beharreko hirigintza araudiari dagokionez, eta aurreko atalean azalduetakoari kalterik egin gabe, Lantarongo udalerrian indarrean dauden Arau Subsidiarioen 201. artikulua, "Eremu bakoitzean baimendutako erabilerak eta jarduerak" izenekoak, 2. puntuan, 1. zonan baimendutako erabileren zerrenda jasotzen du, eta horien artean daude "Ikerketa eta dibulgazio zientifikoari lotutako eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak, (...)"

Proiektatutako instalazioaren ezaugarriak eta helburuen izaera kontuan hartuta, "Lanta" estazio sismikoa erabat txertatzen da 1. zonan baimendutako eraikuntza erabilera eta jardueretan.

Bosgarrena. Ondorioz, azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik, instalazioa landa lurretan eta kokaleku zehatz horretan kokatzea justifikatuta dago, proiektuan jasotakoaren arabera.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Lanta" izeneko jarduera sismikoa neurtzeko estazio bat jartzeko proiektuari interes publikoa aitortzea. Estazio hori Euskalsis Sarean sartuta dago, eta Lantarongo udalerriko lurzoru urbanizaezinean kokatuko da (380 lurzatia, 1 poligonoa, Sobrongo jurisdikzio), Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikoaren adierazpenak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta hark aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik.

Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsua.

Gasteiz, 2019ko azaroaren 5a

Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO